

**SANTA TERESAREN AUTOBIOGRAFIA EUSKARAZ
(ITZULTZAILEAREKIN ELKARRIZKETA)**

Banekian zeozer Santa Teresaren idazlan guztiak euskaratzeko ametsetan ziharduala Luis Baraiazarrak. Baina ez neban uste, ametsak hain bizkor egia bihurtu leitekezanik. Gabonetan jakinaren gainean jarri ninduen, ez bakarrik Santa Teresaren Autobiografia euskaratuta, baita gaztelera eta euskaraz argitaratuta be laster ikusiko genduala.

Berehalaxe jo dot *Karmel* aldizkariaren zutabe dogun idazle fin honengana, elkarrizketa egiteko asmotan. (Bai itaunak eta bai erantzunak idatziz aurkeztuak izan dira).

Andoni Olea: Noiz bururatu jatzun Santa Teresaren lan guztiak euskaratzea?

Luis Baraiazarra: Nigan luzaro izan dan asmoa da; hasieran, ez erabakia hartzera eroango ninduan asmo sendo legez, kontzientzian une batzuetan piztu eta itzali jardun ondoren, gehiago seinalerik emon barik geratzen zan argitxu bat legez baino. Barruko eta kanpoko eragingarriak izan ditut lan honi ekiteko. Barruan, egitearen alde agertzen jatan arrazoiren baten ondoan, ia beti handiagoa agertzen jatan kontra. Esaterako, euskaldun guztiok gaztelera dakigun ezker, Santa Teresa

bere hizkuntzan, gazteleraz, irakurtzea dala normalena, eta euskaraz irakurtzeari zentzun gutxiago aurkitzen neutsan. Ez, beharbada, horretan sentibera garen euskaltzaleontzat, baina bai gehienentzat. Beraz, Santa Teresa euskaratzeak balio sinbolikoa baino asko gehiagorik ez eukala... Jakina, horrekin batera, lanaren zailtasuna eta neure buruari ezartzen neutsan zama handia egozan. Horrek guztiorrek atzeratzen ninduan apur bat...

Egitearen aldeko arrazoiaren artean, Santa Teresa euskal literaturan txertatzea eta euskal letretako zaleei haren espirituzko altxor aberatsa euskaraz eskaintzea egoki eta bidezko eta, esango neuke, ia beharrezkotzat jotzen neban.

Bestalde, barruak eskatzen eustana zan, San Paulok dinoskun hau kontzientzian daroagulako: “Egiaz, Berri Ona hots egiten dudala-eta ezin naiz harrotu; ezinbesteko eginbehartzat jotzen baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!” (1 Ko 9, 16). Beraz, holako testu esanguratsuak euskaraz jartzea ebanjelizatzeko-bidean ekarpen ona zalakoan nengoan.

Kanpoko eraginak be sumatzen nituan. Esaterako, Santa Teresaren jaiotzaren 5. mendeurrena hurreratuz doala. Horren aurrean, euskaraz idazteko grazia apur bat dogunok egin gein-ken gauzarik ederrenetarikoa dala uste izan neban.

Kanpoko eraginen artean, gainera, zuzeneko eskaria jaso neban, mezulari baten bidez, pertsona batek horretarako berenberegi emoniko diru-laguntza bat aginduz. Orain dala urte batzuk izan zan hori, baina bat-batean etorri jatan mezulari edo bitartekoa eta, orduan San Joan Gurutzekoa be tartean sartzen zan ezkerreko, ez nekian gauzak serio ete joiazan. Nik, hartzekotan be, nahikoa neban Santa Teresarekin. Gainera, orduan Vatikanoko II. Kontzilioko dokumentuekin niharduan buru-bela-

rri eta beste asmo hau hor geratu zan lotan. Harrezkero, Benedikto XVI.a Aita Santuaren hiru Gutun-Entziklikak euskaratu nituan eta, azken hiru urteok gaixotasun larri baten aurka borrokan emon ditut, ebakuntza bi izan ondoren. Honezkero, nire egoera jakinik, ez neban uste mezulari edo bitarteko ha barrero etorriko jatanik, baina bai, eta jaun haren –nik ezagutzen ez neban jaun haren– diru-laguntza eta guzti, etorri be. Beraz, barruko eta kanpoko eraginak bat egitean, lanari lotu behar ezinbestean. Orain dala hamar bat hilabete hasiko nintzan horretan; testuak begiratzeko eta aurkibidea moldatzen, pixka bat lehenago. 2012ko urtarrilaren 7an, zapatuan, amaitu neban bizitza-liburua; orain, elkarrizketa honi erantzuteko etenda itzi dot, argitalpenerako azpiko ohar eta beste gauzatxu batzuen faltan.

A. O. Santa Teresaren autobiografía itzultzean, zeintzuk izan dira zailtasun gogorrenak?

L. B. Santa Teresa, karmeldarrontzat, gutxi-asko ezaguna da, baina gauza bat da oro har ezagutzea eta beste bat haren testuak itzultzea. Itzultzerakoan testu originala zehatz-mehatz ulertu eta interpretatu behar da. Behin hori egindakoan, eduki horri euskarazko janzkia jartzea errazagoa da. Une batzuetan, itsasoan aldeko haizeaz joatea legez da, baina ustekabeen haizea aldatu eta zurrumbiloan sarturik ikusten dau batek bere burua. Hori, Santa Teresaren autobiografiaren ia kapitulu guztietan jazotzen da; hasi eta amaitu, buruhauste eta zailtasun barik, nekez egiten da...

Orduan non bilatu argia? Azpiko oharretan interpretatze zuzenerako argibideak gutxitan agertzen dira. Beste era bateko argibideak izan ohi dira gehienetan. Askok lagundu didana *VO-CABULARIO DE SANTA TERESA* Jeannine Poitrey-k idatzia izan da. Dana dala, ia gehien eskertzekoa, gazteleraren kidekoa ez dan alemaneko itzulpenetik lorturiko argia izan da; Julen Urkizari

175

Quisiera yo q̄ como f̄mea mandado y d̄do
 la r̄gali c̄n̄cia pa q̄ es cri ba el m̄do de
 oraci on y las c̄nt̄ q̄ el sēn̄r me a eho me la die
 ran pa q̄ m̄y por m̄m̄do y con claridad d̄jera
 mis gran des pecados y f̄n̄n bi do d̄iera me gr̄a
 con f̄uelo mas no an q̄ ri do an tes a ta do me m̄
 cho en este caso y p̄re to pi do por a un de sēn̄r
 tenga de lon te de los ōs qui en este d̄is cur si
 de m̄y vi da le x̄e q̄ a si do tan f̄n̄n q̄ me a lla
 do san to de los q̄ se tor na von a d̄is con qui en me c̄
 so las por q̄ con fi de ro q̄ des p̄es q̄ el sēn̄r fue
 llama do no le to r̄n̄ pa a o fen der y om̄ fo to
 to na va a ser pe or fino q̄ pare ce tra ya es b̄r̄o
 a f̄er tir las c̄nt̄ q̄ su ma j̄e tad me a c̄ia con qui
 en se b̄r̄a o b̄li gar a ser vir mas y en ten di a de si
 m̄ pu dia pa gar lo me us de lo q̄ de b̄r̄a sea ben di to
 por si en pe q̄ tan to me es pen a qui en con to do mis co
 ra con su pli cu me de gra c̄ia pa q̄ con to da clari
 dad y ver dad yo a ga esta f̄e la c̄ion q̄ mis con fe so
 res q̄ mis con fe so res me man dan ya an el sēn̄r se yo
 quie re mu chos dias a fino q̄ yo no me a tre bi do
 sea ya q̄ d̄u r̄a ya ta ban sa su yo y pa q̄ de quie
 ran te con ci en do me e llo mis ju ay b̄ den a mi
 a q̄ ca pa me da se b̄r̄i al d̄ de los q̄ de b̄r̄o el
 sea ben to d̄y los ōs amen

Santa Teresaren autobiografiaren eskuizkribua.

kontsultatu eta beste barik lortu ahal izan dodana. Egia da, hor dagoala A. Santi Onaindiaren itzulpena be, baina Santa Teresaren testuan diran ilunguneak argitze bidean gutxi lagundu deust; gehiago, euskarazko adierazpenetan.

Argi esanda, zeintzuk dira Santa Teresaren testuetan aurkitu ditudan zailtasunak? Gaia bera da korapilatsua. Arrazoia bista-koa: haren autobiografia azaleko edozein kontaketa guztiz kontrakoa da. Barru-barrukoa da. Bere arimaren historia. Jainkoarekin hartu-emon pertsonal eta barru-barrukoan bizi izaniko arimaren historia; aitor-entzuleentzat, honeen eskariz eta aginduz, idatziriko kontu-emote zehatz eta harrigarria. Ume-umetan Jainkoaren maitasuna barruan erne jakonean hasten da; gero, hartu-emon haretan gaztetxu zala izan zituan gorabeherak azaltzen ditu; bere aitak disimuluz, une haretan eukan arriskutik gordetzearren, mojen barnetegi baten sartu ebane-koa eta, aitak jakin barik, bere neba bat abentura lagun ebala, goizean goiz etxetik ihes egin eta moja sartu zane-koa. Hona artekoa da, kontaketa aldetik, normalena eta euskarara itzul-ze-ko be errazena.

Gero, berak bizi izaniko esperientziatik, otoitzaren eta otoitz graduen irakaspen sakon eta miresgarria emotera jotzen dau; Jainkoak egiten eutsazan grazia mistikoen kontaketa betetzen ditu gainerako orrialderik gehienak; parte onekoak, txarrekoak edota bere begitazioak ete ziran bereizteko kez-ka; aitor-entzuleekin, teologo eta gai espiritual eta erlijiosoetan adituak ziranekin izan zituan amai bako hartu-emonak; San Jose monasterioaren fundazioa eta hor izan zituan eragozpen, kontrakotasun eta laguntzak... Grazia mistikoak kontatzean eta bere ariman jazotzen zanaren kontu emotean, askotan, berba edo adierazpen egoki barik ikusten dau bere burua, zer eta zelan esan ez dakiala. Horregaitik, hori guztia adieraztea protagonis-

ta berarentzat be gaitza izanik, are gaitzagoa izan behar itzultzailearentzat.

Gaiaren aldetiko zailtasunez gainera, Santa Teresaren estiloa bera be nahiko korapilatsu eta bihurria da: XVI. mendeko gaztelera, esamoldez aberatsa eta, ziur asko, ahozko gaztelaren ekarri ugaria erakusten dauana. Sintagmak eta esaldiak oso luzeak, askotan gure logikaren haria haustekoak eta, oraindino gehiago korapilatzekeo, parentesi ugari dabenak. Hainbat kasutan subjektua ezkutuan danean, kontu handiz jardun behar da, oker ez interpretatzeko. Bestalde, Teresak oso bizkor idazten dau; idatzirikoa barriro ikusteko eta orrazteko asti barik izan ohi zan. Hortik, sintaxian koherentziarik eza atal batzuetan, eta lotura eta zertzelada batzuk hain argi ez geratzea beste batzuetan, batez be itzuli behar dauan batentzat.

Azkenik, goiko lerroetan aditzera emonda geratu da pixka bat, baina terminologia be barri-barria da kasu askotan. Esaterako, “oración mental”, “oración de quietud”, “oración de unión”; “visión”, “unión”, “arrobamiento”, “elevamiento”, “vuelo de espíritu”, “arrebataimiento”, “éxtasis”. Berak dino “arrobamiento” dalakotik hasita jarri ditudan hitzak fenomeno beraren izen ezbardinak dirala, hau da, sinonimoak, baina jakina! berak sinonimoak darabiltzan ezkerro, itzultzerakoan be sinonimoak bilatu behar: *arrobamiento: liluramendua; elevamiento: goraldi; vuelo de espíritu: espirituaren hegaldia; arrebataimiento: gainezkaldia; éxtasis: estasia...*

A. O. Euskaratuta daukazuz, besteak beste, Teresa Lisieuxkoaren Autobiografia eta haren Olerkiak, Vatikanoko II. Kontzilioaren Dokumentu guztiak, Benedikto XVI.aren Entziklikak eta orain Santa Teresaren Autobiografia, honeetatik zeintzuk emon deusue buruhauste gehien?

L. B. Holako lanetan buruhausteak alde askotatik etorri ohi dira. Baina aspaldi eginiko lanak diranean, horreek erraz ahaz-

ten dira eta alde onak bakarrik gogoratzen, batez be lana norbere gustura geratu danean.

Esaterako, Santa Teresa Lisieuxkoaren Autobiografia eta Olerkiak poz-pez gogoratzen ditut; gomuta gozoa itzi eustien. Haren gainerako idazkiak orraztea, zuzentzea eta batasuna emotea pixka bat zailago egin jatan, baina ez horrenbeste. Teresatxoren heriotzaren mendeurreneko urtea eta Eliz Irakasle izendatu ebenekoa berariazko eraz gogoratzen ditut. Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltzaleok bat egin genduan Teresa Lisieuxkoa omentzean eta bidaia erlijioso-kulturala eratu zan Alençon eta Lisieuxera. Hori gauza polit-polita izan zan. Haren estiloa eta kontatzeko era, beraren nortasun eta pertsona diran legez, gozoa, samurra, argia eta hunkigarriak dira. Behin pertsonaia batek horretaraino liluratzen eta erakartzen zaituanean, gogotsu eta atseginez murgiltzen zara haren testuan eta zailtasun eta buruhausteei ez jake hainbeste erreparatzen.

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa nekagarriago egin jatan, batez be dokumentu guztiak eta dokumentu osagarriak itzuli ondoren, frantseseko edizioaren gaien aurkibide luze-luzea itzuli beharra izatean. Bestalde, euskarazko literatura zaharrean erlijio-gaia nagusi izan arren, testu barrietarako, Vatikanoko II. Kontzilioan erabiliriko erlijio-gai barrietarako, euskara nahiko trebatu barik eta baliabide gutxirekin aurkitu neban.

Eliz jendeak protagonismorako dauan joeraz jabeturik, dokumentuak neure erara itzuli arte, bake-bakean itzi nagiela eskatu neban. Nire nahi hau errespetatua izan zan eta gero konaturatu nintzan neurri hori egoki-egokia izan zala, ezelako presio barik, bakardadean testuak landu ahal izateko. Gero argitalpenaren arduradunak –Jose Luis Zinkunegi jesulagunak-teologo euskaldun batzuen eskuetan jarri zituan nik itzuliriko

dokumentuak, zer nori bidali bakoitzaren espezializazioen arabera erabakiz. Erantzunak Jose Luis Zinkunegik berak bildu zituan eta gero niri bidali. Lagungarri izan jatazan, zertan esanik be ez. Itzulpena hobetzeko, latinezko testu originalari hobeto lotzeko eta hainbat zertzelada zehazteko eta argiago jaritzeko bidea izan zan. Batzuk, gainera, poza eta esker ona agertzen eustezan. Besteren batzuk, barriz, gorago aitatu dodan protagonismo nahia, presio eta inbidia-tantak be erakusten zituen. Beraz, gomuta nahasiak geratu jataz itzulpen honetaz, baina, azken baten, hainbaten laguntzaz eta ekarpenez, giza miseria guztien gainetik, argitalpen bikaina lortu gendualako poza dot barruan.

Benedikto XVI.a Aita Santuaren hiru Gutun-Entziklikak, Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren antzeko testuen sailean sartuko neukez.

Lehenengo Entziklika *DEUS CARITAS EST* da. 2005eko abenduaren 25eko data dau. Entzikliken eta, oro har, Vatikanoko dokumentu garrantzitsuenen hizkuntza ofiziala latina izan ohi da; ez beti hizkuntza originala. Kasu askotan, hizkuntza originala italiara izaten da, eta Aita Santu honen kasuan, alemana be bai.

Dana dala, Entziklikak argitaratzen diranean, era batera argitaratzen dira munduko hizkuntza nagusietan. Gero, apurka-apurka argitaratuz joaten dira hizkuntza txiki batzuetan. Euskarara itzultzeko eskaria goian datorren data horretan edo ondorengo egunetan helduko jatan Donostiako Gotzaindegiko Prentsa-arduradunagandik eta laster ekin neutsan lanari, Elizbarruti haretan egiteko ziran jardunaldi batzuetarako esku artean izatea nahi ebelako. Otsailaren azken aldera amaitua neukala uste dut. Elizbarrutiko web orrian jarri eben, ez paperean; baina guk *Karmel* aldizkarian argitaratu genduan (*Karmel-2006-2*; 74-122. or.).

Bigarren Entziklika, *SPE SALVI* da; beraz, lehenengoa kristaumaitasunari buruzkoa eta bigarrena kristau-itxaropenari buruz-

koa. Honek 2007ko azaroaren 30eko data dau. Egun berean heldu jatan euskarara itzultzeko eskaria, baina oraingoan prisa barik egiteko... Laster egin nebala uste dot, eta hau be, Donostiako Elizbarrutiko web orrian jarri eben eta guk *Karmel* aldizkariaren 2008ko urtarrila - martxoa zenbakian argitaratu genduan (*Karmel*-2008-1; 61-113. or.).

Geroago, Euskadiko Erlijiosoan Erakundeak / Confer Euskadi izenekoak argitaratu zituan, gaztelerazko bertsioa ondoan ebela. Hirugarren Entziklika eta luzeena, *Caritas in Veritate*, Euskadiko Erlijiosoan Erakundeko idazkari dan Txema Arzallusen eskariz itzuli neban. Eta erakunde horrek berak argitaratu eban, aurreko biak legez. Hau ez genduan *Karmelen* argitaratu; luzeegia zan harako eta ia aldizkari osoa hartuko ebalakoan, aukera hori baztertu egin genduan.

Benedikto XVI.a oso jakintsua da eta gauzak azaltzen zehatzta. Ezagun da irakasle izan dana urte askoan. Liburu Santueta-ko, Filosofiako eta Teologiako autoreen aipamenak era-erara eta egoki ekarriak dagoz, darabiltzan kontzeptuak indartzeko eta argitzeko, baita adibideak be.

Itzultzeko zailtasunak ugari izan ditut. Kontzeptu filosofiko eta teologiko ugari darabiltza, hizkuntza nagusietan ohikoak, baina euskaraz oso gutxi erabiliak diranak. Baso itsuan bidea zabaltzen diharduanaren itxura hartzen deusagu geure buruari. *Eros* eta *agapé* eta antzeko kontzeptuetan eta horreen azalpenetan diharduanean, nahiko zail egiten da hori guztiori originalaren indarra moteldu barik eta argitasun berberaz euskaraz adieraztea. Dana dala, zailtasunik handiena azken Entziklikan izan neban; luzeena be bera da. Uste dot, esaldi luze korapilatsuak besteetan baino gehiago aurkitu ditudala hemen. Baina, azken baten, kostata bada be, pozik geratu naz ni egin ditudan itzulpen honeekin.

Azkenik, Santa Teresaren autobiografiaren itzulpena. Hau oraindino barri-barri dot gomutan eta gogo-gogoan ditut aurki-

tu ditudan buruhauste eta zailtasunak be. Horregaitik edo, be-
rau begitandu jat gaitzena eta bihurriena. Goragoko itaunari
erantzutean emon ditut horren argitasunak eta han esanikoeta-
ra bidaliko neuke irakurlea.

A. O. Santa Teresaren Autobiografiaren arabera, zeintzuk
dira haren bizitzako unerik garrantzitsuenak?

L. B. Une garrantzitsuak asko dira eta batzuk besteen gaine-
tik azpimarratzea ez jat bape erraz egingo; dana dala, guztien
artean aukera bat egitekotan, honeek jarri jataz trabes kon-
zientzi aurrean:

Umetako urteak. Ume-umetan Jainkoaren maitasuna biho-
tzean zelan erne jakon kontatzen deusku lehenengo kapitu-
luan eta zer laguntza handia dan horretarako gurasoak bertute-
tsuak izatea:

Guraso bertutetsuak eta Jainkoari lotsa ziotenak izatea nahiko izango nuen, ni neu hain kaskarra izan ez banintz, Jaunak egiten zizkidan mesedeekin, ona izateko. Liburu onak irakurtzen zalea zen nire aita eta halakoak zituen erromantzez bere seme-alabek irakur zitzen. Honek, nire amak guri errezarazteko eta Andre Mariaren eta santu batzuen debozioa gudan ezartzeko zuen arretaz, sei edo zazpi urteko nintzela, nik uste, itzartzera eraman ninduen. Neure gurasoengan bertutearen aldekoa baino besterik ez ikusteak laguntzen zidan horretan. Bertute ugari zituzten (1. kap., 1).

Umetako urteetan polita eta gozoa da Rodrigo bere nebare-
kin izaten zituan deboziozko jolas, gogoeta eta ametsak:

Bada, nire nebek ez zidaten inolako eragozpenik jartzen Jainkoa zerbitzatzeko. Bat nuen ia neure adinekoa, elkarrekin Santuen bizitzak irakurtzeko biltzen ginen; hau zen nik maiteen nuena, nabiz eta nik guztiei maitasun handia izan eta baiek ere bai niri. Santuek Jainkoagatik igarotzen zituzten martiritzak ikusiz, Jainkoaz gozatzera joatea oso merke erosten zutela iruditzen zitzaidan eta nik neuk ere desira bizia nuen bala biltzeko, baina ez Jainkoa maite nuela neri-

tzolako, zeruan ondasunak handiak zirela irakurtzen nuenez gero, haietaz laster batean gozatzearren baizik, eta neba honekin elkartzan nintzen horretarako zer bide zegoen tratatzeko. Mairuen lurraldera joatea erabaki genuen, Jainkoaren maitasunagatik eskatuz, han burua moztu diezagutela. Eta uste dut nik, Jaunak gogo berotzen zigula bain gazterik, handik edo hemendik bideren bat aurkitzen bagenuen, baina gurasoak izatea zela iruditzen zitzaigun eragozpenik handiena (1. kap., 4).

Lehenengo debozio eta berotasuna galdu ondoren, huskerietan eta bide arriskutsuan sarturik, erabakigarria izan zan Teresaren geroko jainkozko bizitzarako, aitak neskabila gazteen hezierarako monasterio baten sartzea. Holan kontatzen deusku Teresak:

Izan ere, ez dut uste hiru hilabete baino gehiago zirenik huskeria hauetan sartuta nengoela, eta toki honetan zen monasterio batera eraman ninduten, balako pertsoneri beziera emateko lekura, han zeudenak ni bezain kaskarrak izan ez arren obiturretan; eta hau bain disimulu handian izanik, nik neuk eta etxekoren batek bakarrik jakin zuen; bada, abagunearen zain egon ziren gauza berritzat inork bar ez zezan: izan ere, nire abizpa ezkondu ondoren, amarik gabe bakarrik geratzea ez zen komeni (2. kap., 6).

Otoitzaren garrantzi handia azpimarratzen dau; sekula be ez dala alde batera itzi behar dino, ez pekatuakaitik, ez apaltasun faltsuagaitik. Behin eta barrero ekiten deusa ideia honi, baina ataltxu hau begiz jo dot:

Nik neuk ikusita dakidana esan dezaket, eta hauxe da: otoitzari ekin diezaiotzak, egintza okerrengatik ez dezala alde batera utz, berriro erremedioa aurkitzeko bidea baita, eta hura gabe askoz zailago gertatzen baita. Eta ez diezaiola deabruak eragin, niri bezala, apaltasunagatik alde batera uztera; sinets dezala ezin dutela buts egin haren bitzek, egiaz damutzen baldin bagara eta Hura ez iraintzeko erabakia hartzen baldin bada, lehengo adiskidetasunera itzultzen dela eta lebe-

nago egin obi zituen mesedeak egitera eta batzuetan handiagoak ere bai, damuak hala merezi izanez gero

Eta oraindik otoitzari ekin ez dionari, eskatzen diot nik Jaunaren maitasunagatik, ez dezala falta izan ondasun handi hori. Hemen ez da zertan beldurturik, hemen nabi izan bebar da; izan ere, aurrera ez doanean eta Jainkoak baiei eman obi dizkien atsegin eta dohainak merezi dituen perfektiorantz jotzen ez duenean, gutxi irabazi arren, zerurako bidea ulertuz joango da; eta horretan irauten badu, Jainkoaren errukian dut nik itxaropena, adiskidetzat hartu duenik ez baitu ordaindu gabe utzi; gogoetazko otoitza ez baita, nire iritziz, maite gaituela dakigunarekin adiskide-barremanetan jardutea baizik (8. kap., 5).

11. kapitulutik hasi eta 21.era arte, otoitzari buruzko irakaspen eder miresgarria agertzen deusku, ortuaren eta uraren irudiak erabiliz. Atal honetan Teresa kontenplazio eta otoitz bizi-zaren maistra gorena agertzen jaku.

Oso garrantzitsuak dira haren bizitzan, Jainkoak berak nahi eban bidera etorri eitean, unean-unean eta ia eten barik egiten eutsazan dei eta abisuak, baita bide horretan eusteko egiten eutsazan grazia mistikoak ere. Aitak, arriskuetatik gordetzearen, monasterio baten sartu ebanekoa aitatu dogu gorago. Neskatilea haren ardura eukan moja santu batez berba egiten deusku Teresak. Moja hori eta hango giroa izan ziran Teresari barrua ikutzeko eta barrero hasierako bide onera etortzeko Jainkoaren bitartekoak:

Bada, moja bonen solasaldi on eta santuez gozatzen hasi nintzelarik, atsegin hartzen nuen hari Jainkoaz hain ongi hitz egiten entzutean, oso zentzudun eta santua baitzen. Nire us-tez, beti entzun izan nion atseginez. Bera nola moja izatera etorri zen kontatzen hasi zitzaidan, ebanjelioak dioen hau irakurritz besterik gabe: “Gehiago dira deituak aukeratuak baino”. Jaunak Beragatik guztia uzten zutenei ematen zien saria gogorarazten zidan (3. kap., 1).

Beste era bateko deiak eta abisuak be ugari agertzen dira, batzuk nahiko misteriotsuak. Esaterako, orduan bizi zan monasterioan klausura ez gordetzetik eta batzuekin eta besteekin izaniko hartu-emonetatik munduko gauzak, pentsaerak etab. sartu ohi ziran barru-barruraino. Hortik babestera etozan Jaunak era batera edo bestera eginiko abisuak:

Behin, pertsona batekin nengoela, hura ezagutu berritan, Jaunak jakinarazi nahi izan zidan ez zitzaizkidala komeni balako adiskidetasunak, abisua eta argia eman nahi izan zizkidan itsumen handi hartan: irudiz Kristo agertu zitzaidan aurrean aurpegi oso serioaz, hura zein mingarri zitzaion aditzera emanez. Arimaren begiekin ikusi nuen gorputzarenekin baino argiago, eta hain grabaturik gelditu zitzaidan, non, hogeita sei urtetik gora dira barrezkero eta, aurrean dudala baitirudi (7. kap. 6).

Beste behin pertsona berarekin nengoela, guganantz etorzen ikusi genuen –eta han ziren beste pertsona batzuek ere ikusi zuten– zapo handi baten antzeko zerbait, haiek ibili ohi diren baino askoz arinago zetorrela. Hura etorri zen lekutik ez zait buruan sartzen egunaren erdian balako zomorririk izan zitekeenik ezta sekula izan denik ere, eta barruan egin zidan eragina, uste dut, ez zela misteriorik gabea izan. Eta hau ere ez zitzaidan sekula ahaztu. Oi Jainko handia, nolako arretaz eta errukiz niri abisuak ematen jarduten zenuen era guztietara, eta zein gutxi aprobe txatu nintzen ni! (7. kap., 8).

Nire arima nekatua zen ordu ezkerro eta, nahi zuen arren, ez zioten uzten atsedean hartzen berak zituen obitura kaskarrek. Behin gertatu zitzaidan, otoiztegian sartzerakoan, etxean egin ohi zen jai baterako bilatu eta han gordetzeko ekarri zuten irudi bat ikustea. Kristorena zen, zauriz betea eta hain deboziozkoa, non, hari begiraturaz, guztiz nabasi bainintzen hala ikusirik, ongi agertzen zuelako gugatik igaro zuena. Hainbestearaino sentitu nuen zauri haiei eman nien esker gaiztoa, non bibotza erdi bi egiten zitzaidala baitzirudien, eta haren aurrean abuspeztu nintzen malkotan urtua,

behin-bebingoz senda nintzala eskatuz, gebiago iraindu ez nezan (9. kap., 1).

Hari beretik aurrera eginez, Teresa, ordurako, Jainkoarekin bat-bat eginik egoan, baina berezkoa eban maite eben pertsoneri esker onez erantzutea eta hartu-emon hareei eustea. Duda-muda honeetan Jainkoak bere borondatea zein zan agertu nahi izan eutsan:

Behin otoitzari emana eta Jaunari berari guztian poz ematen lagundu diezadala eskatzen aritu ondoren, himnoari ekin nion, eta esaten ari nintzela, gainezkaldi bat etorri zitzaidan, hain bat-batekoa, non ia neure senetik atera baininduen; ez nuen bartaz zalantzarik izan, oso ezaguna izan baitzen. Jaunak liluramenduen mesedea egiten zidan lehen aldia izan zen hau. Hitz hauek entzun nituen: “Aurrerantzean ez dut nahi gizakiekin harremanik izan dezazun, aingeruekin baizik”. Harri eta zur geratu nintzen; izan ere, arimaren mugimendua handia izan zen, eta hitz hauek espirituaren barru-barrutik esan zitzaizkidan, eta horrela beldurrak hartu ninduen, baita bestalde pozak ere, poza geratu baitzitzaidan –nire iritzi– gauza berriak eragin zuen beldurra kendu zitzaidanean (24. kap., 6).

Haren bizitzan, grazia mistikoen artean, oso garrantzitsuak izan ziran hainbat ikuskari; esaterako, Kristoren eskuak behin eta haren aurpegia beste behin ikustea; Hirutasun Santua, halako ikuskari baten, misterio hori teologoek azalpenetan agertzen dan baino askoz hobeto ulertzeko grazia egin eutsala Jaunak esango deusku. Batez be infernuaren ikuskaria, lehenengo unean eragin eutsan ikararekin batera, graziarik handienetarikoa izan zala be badino.

San Jose monasterioaren fundazioak eta, oro har, moja eta fraideen komentuen fundazioak markatuko ditue Teresaren azken urteak. Baina horreek guztiak Teresaren beste obra baten, *Fundazioak* liburuan, kontatzen dira zehatz-mehatz. *Bizitzan* San Jose monasterioaren, Erreformaren lehenengo komentua-

ren, sorrera eta hor izan zituan oztopo, marmar, buruhauste eta laguntzak kontatzen dira bizi-bizi...

A. O. Gaur egungo kristauontzat zer dakarsku Santa Teresak?

L. B. Haren argia bristadaka legez sumatzen dugu gaurko kristinauen bizitzan, mezu batzuk gugan itsatsi edo bide ziur bat seinalatu nahirik. Zer da, berba gitxitan, harek guretzat daukana? Barruko bizitzaren altxorra. Kanpora begira, modaren eta azkeneko haizera dagoan gizarte honetan, Santa Teresak sakoneko deia, kontraste handikoa, espirituarena dakar. Ateismoa, erlijio guztiak gauza zaharkituen artera baztertuz eta mundu postmodernoaren ikurra eskuetan daukala, harro datorenen sasoian, Santa Teresak Jainkoaren presentzia indartsua dakar. Jainkoagazko hartu-emon pertsonala, Jauna adiskide min legez hartzea; Jainkoagandik, goi-goitik, errealitatea ikustea eta neurtzea; Kristok sortu eban Elizaganako maitasuna; Elizaren zeremoniarik txikienagaitik eta Eskritura Santuko edozein egia-gaitik mila heriotza jasateko prest dagoanaren jarrera; kontenplazio eta otoitz-bizitzan gidaritza ziur-ziurra...

A. O. Izan dozu Santa Teresaren Autobiografia euskaratzean barneko zartada eraginik?

Ez, holakorik ez. Poza eta mirespena bai, karmeldarrok halako ama dogulako. Baina Santa Teresa karmeldarrena bakarrik ez, guztiona da.

A. O. Literatura aldetik, zer azpimarratuko zeunke Santa Teresaren Autobiografian?

L. B. Hainbat gauza egon leitekez azpimarratzekoak, baina nik hiru edo lau atali erreparatu deutset batez be; hona hemen: umetako kontaera politak (Rodrigorekin izaniko gogoeta eta abentura txikiak; eremutarrak zirala eta egiten zituen jolasak...); lau otoitz-graduak azaltzeko darabiltzan baliabideak; bosgarren kapituluan gaixotasun handiak izan eta hiltzat emon

ebeneko kontaketa bizia; infernuko ikuskariaren deskripzio bardin bakoa.

Bestalde, Santa Teresak, kontraera berez serioa izan arren, umore eta ironia tantaz gozatzen daki. Bere buruaz barre egiten dau askotan. Behin, jesulagun bat etortzekotan zan bera bisitazera, kontzientziako gauzak harekin tratatzen zitualako; baina bere burua kaskar ikusten eban Teresak, Jesusen Lagundiko hareek lako pertsona santuen bisitak hartzeko; horregaitik, ez eban nahi ha etorrela mojak jakiterik eta elizainarekin (sakristia-lanak egiten zituanarekin) eta atezainarekin alkar hartu eban, inori esan ez egioen... Hona beraren kontraera euskara itzulita:

Gogoan dut, idatzi ondoren bainbeste gauza txar ikusi nituenez gero eta onik ia bat ere ez, nabigabe eta neke-min handi-handiak jo ninduela. Baita pena hartzen nuen etxean Jesusen Lagundikoak bezalako jende hain santuarekin barremantetan ikusten nindutelako ere; izan ere, neure kaskarkeriaren beldur nintzen eta halakoa ez izatera behartuago nengoela iruditzen zitzaidan eta neure denbora-pasetatik alde egitera, eta hau egin ezik, txarrago zela; eta honela, elizain eta atezainarekin itundu nintzen inori esan ez ziezaioten. Gutxi balio izan zidan horrek, deitu zidatenean, ate ondoan gertatu baitzen komentu guztian zabaldu zuena.

Beste behin, eskerrak emoten deutsaz Jainkoari, bera lako lokatz arte baten Berarentzat ortu hain eder eta usaintsua egin daualako. Hona euskarara itzulita:

Izan bedi bedeinkatua guztiagatik eta nitaz balia bedi, Harren Maiestatea denagatik, nire Jaunak ongi baitaki honetan ez dudala besterik nahi, pixka bat goretsia eta handietsia izan dadila baizik, hondakindegiz zikin eta usain txarreko honetan lore hain leunen baratzea egin duela ikustean. Berorren Maiestateak nahi beza ez ditzadala neure erruz berriro atera eta lehengora itzuli.

A. O. Noizko uste dozu Santa Teresaren lan guztiak euskaratzea?

L. B. Haren jaiotzaren bosgarren mendeurrenerako, Jainkoa lagun, idazlan guztiak euskarara itzulita eta liburua argitaratuta egotea nahiko neuke...

A. O. Mila esker. Ekin gogotsu Santa Teresa euskaratzeari. Amaitzen dozunean, bizi bagara, egingo deusut hurrengo elkarrizketa.

Andoni Olea